

GARAGARTZA

Altzaniako balkoia

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Otsaurteko portuan, GI-2637 errepidearen 17. kilometro puntuan edo, hormigoizko pistari helduko diogu, Otsaurteko Andre Mariaren ermitaren parean. Andikoetxe baserriaren aurretik, langa kanadiar bateko sareta igaro ondoren, Beundako gainetara abiatuko gara, harik eta, 2 km-ko

bidea egin ondoren, aparkalekura iritsi arte. Iturria eta aterpea ere badira han.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako oinetako eta

arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Lainoa sartuz gero –ohikoa izaten da fenomeno hori inguru hauetan–, gomendatzen dugu saihestea trabeseko eremuak, eta pistatik egitea Garagartza bordarainoko bidea eta bueltakoa.

Era berean, aske ibiltzen dira ardiak, behiak eta zaldiak inguru hauetan. Animalia horiek ohiturik daude gizakiekin. Edonola ere, oso zorrotza dute defentsarako sena; hortaz, oinez ibiltzeko arazorik ez badago ere, gomendatzen dugu bakean uztea eta ez erakartzea jaten eman aitzakian, eta are gutxiago aztoratzea. Ez baitago aurreikusterik zer erreakzio izango duten.

Ibilbide honetan goazela, atentzioa emango digute bata bestearen ondoren ageri diren ehiza postuek.



1 de 7

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oria
Hidrokarbonato Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

GARAGARTZA

Arkain eta Ultzama lerroetan bildutako postu eta igoera horiek ehiza tradizionaleko lerro sare bat osatzen dute, hegazti migratzaileak botatzeko. Garai batean instalatuak dira Partzoneriako hainbat tokitan. Gipuzkoako Foru Aldundiak arautzen ditu haien mugapena, balio aldiak eta baldintza orokorrak. Ehiza jardun hori modu

antolatuan gauzatzen da irailaren amaieratik azaroaren amaierara bitartean. Kontuan hartu beharreko inguruabarra da hori, garai modu horretan abiatzen bagara.

Deskribapen laburra

Bide osoa Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorrean igarotzen da, zeina Aizkorri-

Aratz Parke Naturalean baitago, Txurruko puntaren (988 m) ipar-mendebaldeko eta iparraldeko inguruko mendietan.

Ibilbidearen zatirik handiena lur irekietan barrena igarotzen da, harri zolaz jantzitako pistetan eta hegal belartsuetan, Altzaniako amildegiaren eta malkarren ikuspegi izugarri eta bikainekin, hondoan Aizkorri mendilerroko gainak ditugula.



Gipuzkoa hegoaldean eta Araba iparraldean dago Aizkorri-Aratz, eta 2006an deklaratu zuten parke natural. Ia 16.000 hektarea ditu hainbat udalerri eta entitatetan: Aretxabaleta, Eskoriatza, Legazpi, Leintz-Gatzaga, Oñati, Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria Orokorra, Zegama eta Zerain Gipuzkoan, eta Araban, berriz, Asparrena, Barrundia, Apota-Ubarrundiako Partzoneria, Donemiliaga eta Zaldondo. Zirkunskripzio osoa Kontserbazio Eremu Berezizat hartua da, Natura 2000 sarearen barruan (bioaniztasuna kontserbatzeko Europar Batasuneko eremuen sarea).

Partzoneria auzo lurrak dira, haien jabetza elkarrekin partekatzen duten udalerri talde baten partaidetzapekoa, eta haiek guztiek erabiltzen dituzte lurrok modu mankomunatuan. XIV. mendekoa dugu Gipuzkoako eta Arabako Partzoneria (Gipuzkoako Partzoneria Orokorra edo Altzania izenez ere ezaguna). Gipuzkoan, Idiazabal, Legazpi, Segura, Zerain eta Zegama udalerrien partaidetza du, eta Araban, berriz, Lautada aldeko Donemiliaga eta Asparrena udalerriena.



GARAGARTZA



Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

Beundako aterpetik (WP 1), parean igarotzen den pistari helduko diogu, arantzaz eta mahaiz inguraturiko larreen eta pagadiaren erpinean. Martxa horretan, 450 m inguru ibili ostean eta bidegurutze batera iritsitakoan (WP 2), pista utzi eta belardian sartuko gara, zelaian barrena arbola gabeko Unamuno gaina zeharkatuz isurialdeen banalerroan.



A beltzaintza estentsiboa izan da Partzoneriaren erabilera tradizionalenetako bat, eta hala jarraitzen du gaur egun ere. Hori horrela, erabat aldatu du jarduera horrek egungo paisaia. Bertan ibiltzen dira larrean ardi latxak -gazta egiteko esnea ekoiztera bideratuak-, eta haragitarako behiak eta zaldiak. Animalia horiek ohituta daude mendira, eta, karga handiegia ez den bitartean, eusten diote larreen, sasien eta basoen arteko orekari.

Tontorrera iristean (WP3), ikuspegi ederrak izango ditugu buelta guztian, eta mendilerro aldapatsuan jarraituko dugu, isurialdeen banalerroa bistatik galdu gabe. Handik pixka batera, ganaduentzako itxitura batetik barrena, Ultzama muinora iritsiko gara (WP 4). Nahiz eta abereentzako instalazio horrek aska bat baduen, iturri eta guzti, kontuan hartu ez dagoela tratatuta giza kontsumorako.



Waypoint (WP)



1. Hasiera



2. Legar-bidea utzi eta belardian aurrera egingo dugu, haritza dagoen aldera



3. Unamuno mendiaren tontorra



4. Bidegurutzea, ezkerreko bidea hartu, hegoekialdera



GARAGARTZA

Bidegurutze horretatik, pagadiaren parean gora doan pistari jarraituko diogu, eta, pistak ezkerretara hartzen duen garaian (WP 5), utzi eta berriro ere soroan sartuko gara, Txurruko puntaren hego-mendebaldeko mutur babesik gabea igoz. Parean dugun pagadia igaro ostean (WP 6) eta isurialdeen banalerro beretik norabideari eutsiz, sekulako paraje ederrak izango ditugu alde guztietatik ere, eta, zorte apur batekin, sai arreen saldoren bat ere ikusiko dugu. Eta, halaxe goazela, ahalegin handirik gabe iritsiko gara tontorrera (WP 7).

Mendiko abeltzaintzak ere eragin zuzenak ditu faunaren gainean. Mendian gaitzak jota edo amilduta hiltzen diren buruen hilotzez elikatzen dira sai arreak eta halako espezie nekrofagoak, zeinak mendeetan egokitu baitira hain beharrezkoa den bitartekora.


Zuhaitzik gabeko tontorrean, garai bateko hormigoizko erpin geodesiko bat eta mendi postontzi bat topatuko ditugu, eta ezohiko ikuspegiak eskainiko dizkigu buelta guztian, oinean Urdalurreko urtegia dugula: Pirinioak, Aratz-Aizkorri, Ernio, Aiako Harria, Aralar, Ataun-Burunda, Urbasa eta Entzia mendilerroak, Unamuno, Abilleta eta Antzuzkar gainak, Gazteluaitz, baita Garagartzako haitz zurixkak ere... Azken horietara abiatuko gara ondoren.

Urdalurreko urtegia Altzania erreka-estazioak elikatzen du, zeina Partzoneriaren eremuko sakaneko hamaikatxo iturburuz elikatua baita. Hormigoiz zimendatutako aurrealdea Nafarroako Ziordia udalerrian duela, 1986an eraiki zuten Altsasu eta Sakanako udalerri gehientsuenak hornitzeko, hala nola Arbizu, Bakaiku, Etxarri-Aranaz, Iturmendi, Lakuntza, Olazagutia eta Ziordia bera.

Waypoint (WP)




5. Legar-bidea utzi eta belardian zehar aldapan gora



6. Pagadiaren amaiera



7. Txurruko Punta



Korta edo txabolak eskuarki mendietako artzainen aldi baterako bizitokiak dira, eta han biltzen da artaldea gau partean, eskuarki udaberritik udazkenera bitartean. Oro har, haize babesean egon ohi dira, ibar txiki batean, sakanguneren batean, haitzen baten pean, muino batean... Horretaz gainera, artzain txabolak eraikin atxikiak ere izaten ditu, hala nola artegiak -ardiak gordetzeko eta jezteko-, eskortak, baratzeak, txakurtegiak... Garai batean, lizar adarrak edo elorri zuriarenak ipintzen zituzten txaboletako leiho eta ateetan, San Juan bezperan ebakiak, baita arbola horien egurrarekin egindako gurutzeak ere. Era berean, eguzki loreak edo elorri zuriaren arantzak ere ipintzen zituzten, eraikina eta bertakoak babesteko tximistetatik, sutatik eta begizkoetatik. Gaur egun, pista sareak eta egokitutako ibilgailuek izugarri errazten dute artzainaren eguneroko joan-etorria; hori dela eta, une jakinetan ez bada behintzat, txabolak hutsik egoten dira.

Hainbat momentuz miretsi ostean, berriro ere bideari ekingo diogu zelaian barrena, igoera guztian ezkerretan izan ditugun hiru haitzetarantz: Zabalaitz, Bikunaitz eta Naparraitz dira, ezkerretik eskuinera goazela. Hala, isurialdeen banalerroa bistatik galdu gabe eta, igoeran bezalaxe, abere bide ugari gaindituz eta ikuspegi zoragarriak gozatuz, berehalaxe helduko gara bigarren haitz horren oinean lizar eta elorri zuriz babesturik ageri den Garagartza txabola edo korta berri-berrira (WP 8). Haren alboan, hirugarren haitzaren pean, oraindik ere hantxe jarraitzen dute haren aurrekoaren hondarrek: txabola, artegia eta aspaldi-aspaldiko eskorta bat, lur metaketekin.

Kareharrizko mendi paregabe eta erakargarri hauek fenomeno karstiko ugari dituzte eskergan: leizeak, osinak, zirriztuak eta arrailak. Horietan, flora eta fauna espezializatuaren espezie ugari eta bereziak agertzeaz gainera, historiaurreko aztarnategi garrantzitsuak ikusiko ditugu, bizitoki eta ehorzleku izandakoak,


5.000 urtetik gorakoak. Halaber, babesleku apartekoa dira hainbat saguzar eta hegazti nekrofagorentzat, hala nola sai arrea, hauskortzat edo desagertzeko arriskuan dagoen espezieetat hartua Euskal Herrian.

Era berean, lehendabiziko eta bigarren haitzen artean, esandako leize aztarnategien antzintasun berarekin eta Altxaniako Estazio Megalitikoa osatuz, Garagartzako trikuharriko ehorzleku megalitikoa identifikatuko dugu. Horrek guztiak berresten du aspaldian eta modu jarraituan aprobetxatu dituela gizakiak ingurumari hauetako baliabide naturalak.

Waypoint (WP)



8. Garagartzako borda



GARAGARTZA



Bueltan, pagadiaren erpinean abereentzat ipinitako langara doan pistari helduko diogu, Bikunaitz parean.

SL-GI 3004 ibilbide homologatuarekin bat, pagadi txikien artean eta parean basurde talderen batek hausnarrean harrotutako larre istiltsuak ditugula -animaliok sustraien, harren edo

erraboilen bila ibili ondoren-, beste hostozabal batzuk ere izango ditugu tartean-tartean, baita aspaldian konifera sartutako eremuak ere. Eta halaxe helduko gara, ia desnibelik gabe, Txurruko punta gainera (WP 5) ematen duen bidegurutzera, zeina lehen ere zeharkatu baitugu, eta, handik pauso pare batera, Ultzamako muinora (WP 4).

Atetila horretan, parean dugun pistatik aurrera jarraituko dugu, zeina hegal malkartsuak ebakita ageri baitzaigu, Altzaniaerreka arrail sakonaren gainetik igaroz, bistan ditugularik haien isurialdeak osatzen dituzten mendiak eta sakanak, larre irekiz eta pagadi zein pinudi oparoz jantziak.

Pagadia da Partzonerian zabalera handiena duen basoa. Baso oso laiotza da, eta argi falta horrek galarazi egiten du azpioihanean landareak garatzea. Hori dela eta, barrualdea, orbel geruza lodi batez estalirik dago, landararik gabe apenas. Pagadi horiek, gure mendietan geratzen diren guztiak bezala, intentsitate handiz ustiatu zituzten mendeetan zehar, batez ere egur ikatza ekoizteko. Hori horrela, gaur egun ikusten dugun zuhaiztiaren zatirik handiena, inausitako ale bakanen bat kenduta (urteetan eta urteetan gidatua, adar gehiago eman zitzan), berriki ebakitako ipurdietatik sortua da.



GARAGARTZA

Waypoint (WP)

9. Iturria

10. Helmuga

Martxa horretan, Iturrigorri iturburu oparotik igaroko gara (WP 9), zeina maiz-maiz bisitatzen baitute mendi hauetako bazterrez gozatzen duten behi eta zaldiek. Erakargarri ageri bada ere, urak tratatu gabeak dira. Hori dela eta, ikustearekin konformatu beharko dugu, edo, gehienez ere, ezpainak bustitze hutsarekin.


Aurrera jarraituta, pista ezertarako ere utzi gabe, Aratz kareharritzko haitz ikusgarriak gidatuta, inolako zailtasunik gabe bueltatuko gara abiapunturaino (WP 10).

Etxera bueltan, Otsaurteko ermitaren atrioaren atzealdean

ipinita dauden hilarri diskoidalen bilduma bikaina ikus dezakegu. Erakusgai dauden zortzi piezetatik zazpi Zegamako hainbat tokitakoak dira, eta zortzigarrena, berriz, besteetatik bereizia, Nafarroa aldekoa, inguruan den Lizarragako portutik ekarria. Garai batean, hilerrien buruak markatzeko ez ezik, gertakizun tamalgarriak seinaleztatzeko ere baliatzen ziren hilarri diskoidal horiek, gertatu ziren ingurumarietatik hurbil. Erakusgai dauden guztiak azken genero horretakoak dira. Era berean, bada porlanezko mugarri bat ere, Kantauri eta Mediterraneo isurialdeko uren muga zehazten duena.



*Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula,
errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako
zaborra etxera bueltan.*



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

7 de 7

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oribi
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro